

Azken eguneratzea: 2024ko uztaila

MICROSOFT-EN SOFTWAREA-LIZENTZIAREN BALDINTZAK

OFFICE 2024 DESKTOP

**ESTATU BATUETAN BIZI BAZARA EDO ZURE ENPRESAREN EGOITZA NAGUSIA
ESTATU BATUETAN BADAGO, IRAKURRI 10. SEKZIOKO ARBITRAJE LOTESLEARI
BURUZKO KLAUSULA ETA AUZI KOLEKTIBOAREN EZESPENA. GATAZKAK
EBAZTEKO MODUAN DU ERAGINA.**

Eskerrik asko Microsoft aukeratzeagatik!

Office softwarea nola eskuratu zenuen gorabehera, lizentzia-kontratu hau (i) zure eta softwarea gailuarekin batera banatzen duen gailu-fabrikatzailearen edo software-instalatzailaren artekoa da; edota (ii), softwarea saltzaile bati erosi badiozu, zure eta Microsoft Corporation-en (edo, bizi zaren tokiaren edo zure enpresaren egoitza nagusia dagoen tokiaren arabera, bere afiliatuetako baten) artekoa da kontratua. Hala, Microsoft-ek edo bere afiliatuetako batek sortutako gailuen kasuan, Microsoft da fabrikatzailea; eta, softwarea Microsoft-en zuzenean erosi baduzu, Microsoft da saltzailea. Askorentzako lizentziadun bezero baten langilea bazara, Office software honen erabilera zure askorentzako lizentziaren langilearen hitzarmenaren mende egongo da, hitzarmen honen mende baino.

Kontratu honek Office softwarea erabiltzeko dituzun eskubideak, betebeharrak eta baldintzak azaltzen ditu. Hitzarmen osoa irakurtzea gomendatzen dugu, softwarearekin batera datorren edozein lizentzia gehigarri eta estekatutako baldintzak barne. Izan ere, baldintza guztiak dira garrantzitsuak, eta denek batera osatzen dute zuri dagokizun hitzarmen hau. Estekatutako baldintzak ikusi ahal dituzu, horretarako itsatsi esteka aplikagarria arakatzailaren leihoan.

Kontratu hau onartuz gero edo softwarea erabiliz gero, baldintza hauek guztiak onartzen dituzu, baita, softwarea aktibatu eta erabili bitartean, zenbait informazio transmititzea ere, pribatutasun-adierazpenaren 4. Sekzioan adierazi bezala. Baldintza hauekin ados ez bazaude edo betetzen ez badituzu, ezingo duzu softwarea edo bere eginbideak erabili. Dirua itzultzeko gidalerroak ezagutzeko eta gidalerro horien arabera softwarea edo gailua itzuli eta diru-itzultzea edo kreditua eskuratzeko, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin, instalatzailearekin edo, softwarea zuzenean erosi baduzu, saltzailearekin. Gidalerro horiek bete beharko dituzu.

Hala, horiei jarraiki, diru-itzultzea edo kreditua eskuratzeko (halakorik balego), baliteke softwarea instalatuta duen gailu osoa itzuli behar izatea.

1. Informazio orokorra.

a. Aplikazio-eremua. Kontratu hau hurrengoei dagokie: gailuan aurreinstalatuta zetorren edo saltzaileari erosi diozun eta instalatu duzun Office softwareari, softwarea zekarren euskarriari (halakorik balego), softwarean dauden letra-tipo, ikono, irudi edo soinu-fitxategiei, eta softwarearen Microsoft eguneratze, bertsio-berritze, gehigarri edo zerbitzuei, salbu eta horiek beste baldintza batzuk badituzte. Funtzio gehigarriak eskaintzen dituzten Microsoft-ek garatutako Office aplikazioei ere aplikatzen zaie, beste baldintza batzuk aplikatu ezean. Kontratu honetan baliteke gailuan erabilgarri ez dituzun eginbide edo zerbitzuei aplikatzen zaizkien baldintzak aipatzea; horiek ez zaizkizu aplikatuko.

b. Baldintza gehigarriak. Gailuaren ezaugarrien, konfigurazioaren eta erabileraren arabera, Microsoft-en eta hirugarrenen baldintza gehigarriak aplika dakizkizuke eginbide, zerbitzu edo aplikazio jakin batzuk erabiltzen dituzunean. Horregatik, ziurtatu irakurtzen dituzula.

(i) Softwarearen eginbide batzuek lineako zerbitzuetarako sarbide-puntua eskaintzen dute edo lineako zerbitzuetan oinarrituta daude eta, zenbaitetan, zerbitzu horien erabilera beste baldintza eta pribatutasun-gidalerro batzuek arautzen dute; besteak beste, Microsoft-en zerbitzu-hitzarmenak: <https://aka.ms/msa>. Zerbitzua erabiltzeko baldintzetan aurki ditzakezu baldintza eta gidalerro horiek. Baliteke zerbitzuak erabilgarri ez egotea eskualde guztietan.

(ii) Microsoft-ek, edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak beste aplikazio batzuk sar ditzakete, eta horiek beste lizentzia eta pribatutasun-gidalerro batzuen mende egongo dira.

(iii) Softwareak hirugarrenen programak izan ditzake, hitzarmen honen bidez edota beren baldintzen bidez lizentzian ematen dizkizugunak. Hirugarrenen programen lizentzia-baldintzak, lege-oharrak eta aitorpenak ikusteko (halakorik balego), hemen ikus daitezke :<https://aka.ms/thirdpartynotices>.

(iv) Softwarea exekutatzeko ari den bitartean, horren letra-tipoak erabili ahal izango dituzu edukia bistaratzeko eta inprimatzeko. Letra-tipoak aldi baterako deskarga ditzakezu inprimagailu batean edo bestelako irteerako gailu batean edukia

inprimatzeko, eta letra-tipoak kapsula ditzakezu edukian, letra-tipoen kapsulatze-murriztapenek baimendutako heinean.

2. Instalatzeko eta erabiltzeko eskubideak.

a. Lizentzia. Softwarea erabiltzeko lizentzia ematen da, baina ez da saltzen. Hitzarmen honen bidez, baimena ematen dizugu gailuan (lizentziadun gailuan) softwarearen instantzia bat instalatu (softwarea dendari baten eskutik eskuratu baduzu), exekutatu eta aldi bakoitzean pertsona batek erabiltzeko, baina, horretarako, hitzarmen honetan dauden baldintza eta murrizketa guztiak bete behar dituzu. Mesedez, kontsultatu beheko 13-15. Sekzioak, eskubide mugatuko bertsioei, eskualde geografiko jakin batzuei eta softwarearen edizio bereziei dagozkien lizentziak eta baldintzak ikusteko. Software faltsuak Microsoft softwareekin edo baimendutako iturburuetatik eguneratzeak edo bertsio-berritzeak ez du jatorrizko, eguneratutako nahiz bertsio berritutako bertsioa benetako bihurtzen. Hala, halakorik egiten baduzu, ez duzu softwarea erabiltzeko lizentziarik edukiko.

b. Gailua. Kontratu honi dagokionez, "gailua" da softwarea exekuta dezakeen barne-memoriadun hardware-sistema lokal bat (fisikoa zein birtuala). Hardware-partizioak edo blade-ak gailutzat hartzen dira. Hitzarmen honen helburuetarako, "gailuak" ez dakar hardware sistemarik (fisikoa zein birtuala), bertan softwarea instalatzeko, edo soilik sare bateko urruneko erabilerarako.

c. Mugak. Gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek hitzarmen kontratu honetan esanbidez ematen ez diren eskubide guztiak gordetzen dituzte (hala nola, jabetza intelektualaren legearen mendean dauden eskubideak) eta zuk ez duzu beste eskubideren lizentziarik. Adibidez, lizentzia honek ondoko kasuetan ez ditu inolako eskubiderik ematen, eta ezin izango duzu (eta ezin diozu baimenik eman beste pertsona edo erakunde bati):

- (i) softwarearen eginbideak bereiz erabili edo birtualizatu;
- (ii) softwarea argitaratu, kopiatu (baimendutako babeskopiaz gain), alokatu, laga edo norbaiti utzi;
- (iii) softwarea transferitu (hitzarmen honetan baimenduta dagoen bezala izan ezik);
- (iv) softwarearen murrizketa edo muga teknikoak saihesten saiatu;

(v) softwarea zerbitzari-software bezala erabili edo gailua zerbitzari bezala erabili; softwarea erabili ostatzeko zerbitzu komertzialak eskaintzeko; softwarea eskuragarri jarri erabiltzaile batek baino gehiagok batera erabil dezaten sare batean, beheko 2(d)(v) Sekzioan baimentzen den moduan izan ezik; softwarea zerbitzari batean instalatu urrutiko sarbiderako edo lan-sare bezala erabiltzeko; edo softwarea gailu batean instalatu soilik urrutiko erabiltzaileek erabil dezaten;

(vi) softwarea alderantzikatu, deskompilatu, desmuntatu edo antzeko ekintzak egiten saiatu, salbu eta hurrengo hauek halakorik baimentzen badute: (a) indarrean dauden legeek; (b) softwarearekin batera datozen kode irekiko osagaien erabilera arautzen duten lizentzia-baldintzek; edo (c) softwarearekin batera datorren eta honek estekatuta duen GNU Lesser General Public License (GNU Lizentzia Publiko Orokorra eta Murriztuta) lizentziak arautzen duen edozein liburutegitan egindako aldaketak araztu behar badituzu; eta

(vii) Interneten oinarritutako eginbideak erabiltzean, erabil itzazu eginbide horiek beste norbaitek horiek erabiltzea oztopatuko ez lukeen moduan, eta ez zara saiatuko inongo zerbitzu, datu, kontu edo saretan sartzen edo horiek erabiltzen baimenik gabe.

d. Erabilera anitzeko egoerak.

(i) Bertsio anitz. Softwarea eskuratu zenuenean hainbat bertsio jaso bazenituen (adibidez, 32 biteko eta 64 biteko bertsioak), bertsio horietako bat soilik instala eta aktiba dezakezu aldiko.

(ii) Konexio anitzak edo taldekatuak. Softwarea erabiltzen edo atzitzen duen erabiltzaile edo gailu kopurua murrizteko konexio anitzetarako edo taldekatuetarako hardwareak eta softwareak erabiltzeak ez du beharrezko software-lizentzia kopurua murrizten. Hardware edo software hori erabiltzeko, erabiltzen ari zaren softwarearen instantzia bakoitzeko lizentzia bat behar duzu.

(iii) Ingurune birtualizatuaren erabilera. Lizentzia honekin softwarearen instantzia bakarra instala dezakezu gailuan (fisikoan zein birtualean). Softwarea gailu birtual batean baino gehiagotan erabili nahi baduzu, instantzia bakoitzerako lizentzia bat eskuratu behar duzu.

(v) Urruneko sarbidea. Laurogeita hamar egunean behin gehienez, lizentziadun gailua fisikoki erabiltzen duen erabiltzaile bat izendatu behar duzu lizentziadun erabiltzaile gisa. Lizentziadun erabiltzailea lizentziadun gailura sar daiteke beste gailu

batetik urruneko sarbide-teknologiak erabiliz 365 eguneko epean, azken erabilera fisikotik hasita. Beste erabiltzaile batzuk ere (bakoitza aldi batean) lizentziadun gailura sar daitezke beste gailu batzuetatik urruneko sarbide-teknologiak erabiliz. Nolanahi ere, horretarako, software honen edizio bera edo handiagoa exekutatzeko duten lizentziadun gailuak erabili behar dituzte.

(v) Urruneko laguntza. Urruneko laguntza-teknologiak erabil ditzakezu saio aktibo bat partekatzeko softwarearen beste lizentziarik eskuratu beharrik gabe. Urruneko laguntzari esker, erabiltzaile bat beste erabiltzaile baten ordenagailura konekta daiteke zuzenean, batik bat arazoak konpontzeko.

e. Babeskopia. Softwarearen kopia bakarra egin dezakezu babeskopia izan dadin, eta segurtasun kopia hori softwarea transferitzeko erabil dezakezu dendari batengandik software autonomo gisa eskuratu bada, jarraian azaltzen den moduan (xehetasunak helbide honetan: <https://office.com/backup>).

3. Transferentzia. Sekzio honetako xedapenak ez dira aplikagarriak softwarea Europako Ekonomia Esparruan (EEA) eskuratu eta EEA ko beste pertsona edo entitate bati soilik transferitzen badiuzu. Kasu horretan, softwarearen hirugarren bati egindako edozein transferentziak eta hura erabiltzeko eskubideak bat etorri behar dute indarrean dagoen legediarekin.

a. Gailuan aurreinstalatuak softwareak. Softwarea gailuan aurreinstalatuta bazetorren, softwarea erabiltzeko lizentzia lizentziadun gailuarekin soilik transferi diezaiokezu zuzenean beste erabiltzaile bati. Zure softwarea transferitu ostean ez da aktibatuta egongo. Onartutako transferentziak osatu aurretik, beste alderdiak kontratu hau softwarearen transferentziari eta erabilerari aplikatzen zaizkiola onartu beharko du.

b. Software autonomoa. Softwarea erosi baduzu software autonomo gisa, softwarea zurea den beste gailu batera transferi dezakezu, baina ez 90 egunetik behin baino gehiagotan (hardwarea huts egitearen ondorioz izan ezik, kasu horretan lehenago transferitu ahal izango duzu). Softwarea beste gailu batera transferitzen baduzu, beste gailu hori "lizentziadun gailua" bihurtuko da. Era berean, softwarea beste norbaitena den gailu batera transferi dezakezu, baldin eta (i) softwarearen lizentziadun erabiltzaile nagusia bazara eta (ii) erabiltzaile berriak kontratuaren baldintzak onartzen baditu. Softwarea beste gailu batera transferitzen duzun bakoitzean, aurreko gailuko softwarea kendu behar duzu. Ezin duzu softwarea gailuen artean transferitu lizentziak partekatzeko helburuarekin.

4. Pribatutasuna; datuen erabilera onartzea. Zure pribatutasuna garrantzitsua da guretzat. Softwarearen eginbide batzuk erabiltzen dituzunean informazioa bidaltzen edo jasotzen da. Eginbide horietako asko erabiltzaile-interfazean gaituta edo desgaituta egon daitezke, edo eginbide horiek ez erabiltzea erabaki dezakezu. Hitzarmen hau onartuz gero eta softwarea erabiliz gero, ulertzen duzu Microsoft-ek informazioa bildu, erabili eta zabaldu ahal duela, Microsoft-en pribatutasun-adierazpenean adierazitakoari jarraiki hemen: <https://aka.ms/privacy>, eta softwarearen eginbideari lotutako erabiltzaile-interfazean azaldutakoa deskriba daitekeen moduan.

5. Baimendutako Softwarea; Internet Aktibatzeo Eskakizuna. Softwarea erabiltzeko baimena duzu, baldin eta softwareak dagokion lizentzia badauka eta produktuaren gakoaren bidez edo Microsoft-ek onartutako metodoen baten bidez Interneten behar bezala aktibatu bada. **Microsoft-ek eska diezazuke softwarea Interneten aktibatzeo, softwarea erabiltzeko baimena izan dezazun.** Softwarea erabil dezakezu, modu egokian aktibatuta badago soilik. Softwarea modu egokian aktibatu ez baduzu, softwarearen eginbide gehienek lan egiteari utziko diote. Aktibazio prozesuaren barruan, softwarea erabiltzen duzun bitartean Internetera konektatzen zarenean, softwarea Microsoft-ekin edo afiliatuarekin jarriko da harremanetan automatikoki, gailu zehatz batekin erlazionatzeko software hori. Aktibazioa bitartean (edo zure gailuaren osagaien aldaketek berriro eragin dezaketen berraktibazioa), informazio jakin baten transmisioa gertatuko da, eta Internet, telefono eta SMS zerbitzuen kostuak aplikatu daitezke. Edozein momentutan, softwareak zehaztu dezake instalatutako softwarearen instantzia faltsutua dela, lizentzia desegokia dela edo baimenik gabeko aldaketak dituela. Softwarea aldi-aldi eta automatikoki berriro konektatu daiteke Internetera, lizentziadun gailuarekin lotutako lizentzia berresteko. Ez baduzu gailua Internetera berriro konektatzen aktibazio- edo berraktibazio-prozesuaren barruan behar denean, baliteke softwareak funtzionaltasun murriztuarekin funtzionatzea. Horrez gain, softwarearen lizentzia egokia eskuratzeko abisuak jasoko dituzu. Arrakastaz aktibatzeak edo funtzionalitate murriztuko moduan jarraitzeak ez du berresten softwarea benetakoa dela edo lizentzia egokia duela. Aktibazioa baimenik gabeko aldaketak identifikatzeko edo softwarearen funtzioak aktibatzeo xedea duenez, eta, bestela, softwarearen lizentziarik gabeko erabilera ekiditeko, ezin duzu aktibazioa saihestu edo ekidin. Jakiteko softwarea benetakoa den eta lizentzia egokia duzun, ikusi hemen: <https://aka.ms/genuine>. Eguneratze, laguntza-zerbitzu eta bestelako zerbitzu batzuk benetako Microsoft softwarearen erabiltzaileei soilik eskainiko zaizkie.

6. Eguneratzeak. Softwareak eguneratzeak bilatzen ditu lantzean behin, eta zuretzat deskargatzen eta instalatzen ditu. Eguneratzeak Microsoft-etik edo baimendutako iturrietatik soilik eskura ditzakezu, eta, softwarea erabiltzeko hitzarmen hau onartuz gero, eguneratze automatiko horiek inolako jakinarazpen gehigarririk gabe

jasotzea onartzen duzu. Softwarea eguneratzeko hobespenak doi ditzakezu, haiek aldatzeko ezarpenetara nabigatuz. Esaterako, abiarazi Word, joan fitxategira, Kontua, Eguneratzeko aukerak eta hautatu "Desgaitu Eguneratzeak".

7. Murrizketa geografikoak eta esportazio-murrizketak. Zure softwarea eskualde geografiko batean erabiltzeko murriztuta badago, softwarea eskualde horretan soilik aktiba dezakezu. Softwareari aplikatzen dakizkiokeen lege eta arau nazional zein nazioarteko guztiak ere bete behar dituzu; horien barne daude helmugen, azken erabiltzaileen eta azken erabileraren inguruko murrizketak. Esportatzeko murrizketei buruzko informazio gehiago lortzeko, joan zaitez hona: <https://aka.ms/exporting>.

8. Laguntza

a. Gailuan aurreinstalatuak softwarea. Softwareei orokorrean dagokionez, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin, erabilgarri dituzun laguntza-zerbitzuak ezagutzeko. Microsoft-etik zuzenean jasotako eguneratze eta gehigarriei dagokienez, Microsoft-ek laguntza-zerbitzu mugatuak eskaini ditzake lizentzia egokia duten eta aktibatuta dauden softwareetarako, <https://aka.ms/mssupport> helbidean azaltzen den bezala.

b. Saltzaileengandik eskuratutako softwarea. Microsoft-ek laguntza tekniko mugatua eskaintzen du behar bezalako lizentzia duen eta aktibatuta dagoen softwarearen kasuan, <https://aka.ms/mssupport> helbidean azaltzen den bezala.

9. Bermea, Ezeztapena, Konponketa, Kalteak, eta Prozedurak.

a. Berme mugatua. Softwarea lortu duzun moduaren arabera, Microsoft-ek edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak bermatzen dute softwareak horrekin batera jasotako Microsoft-en materialetan azaldu bezala funtzionatu duela, betiere lizentzia egokia bada eta aktibatuta badago. Berme mugatu horrek ez ditu estaltzen zuk sortzen dituzun arazoak, argibideak betetzen ez dituzunean, softwarea erabiltzeko lizentzia behar bezala aktibatu edo berriro aktibatzen ez dituzunean sortzen direnak edo Microsoft-en edo gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen arrazoizko kontrolatik kanpo dauden gertakariak eragindakoak. Berme mugatua lehenengo erabiltzaileak softwarea eskuratzen duenean hasten da, eta urtebeteko iraupena dauka Microsoft-etik eskuratzen bada, edo 90 eguneko iraupena, fabrikatzaile edo instalatzaile baten eskutik lortzen bada. Eguneratzeak edo gehigarriak Microsoft-ek zuzenean ematen badizkizu fabrikatzailearen edo instalatzailearen berme mugatuaren 90 eguneko epearen barruan, Microsoft-ek eskainiko dizu eguneratze edo gehigarri horien berme mugatua.

Microsoft-ek urtebetean eman diezazkizukeen gainerako gehigarriak, eguneratzeak edo ordezkatzeko softwareak ere estalita daude, baina soilik urtebeteko epe horren barruan falta den denborarako, edo 90 egunerako fabrikatzaile edo instalatzaile batek emandakoa bada, edo 30 egunerako, edozein dela luzeena. Softwarea transferitzeak ez du berme mugatuaren epea luzatzen.

b. Ezeztapena. Ez Microsoft-ek, ezta fabrikatzaileak edo instalatzaileak ere, ez dute beste berme, garantia edo baldintza espliziturik. **Microsoft-ek eta gailuaren fabrikatzaileak eta instalatzaileak kanpoan uzten dituzte berme eta baldintza inplizitu guztiak; besteak beste, merkaturagarri izatearenak, xede jakin baterako egokia izatearena eta araurik ez urratzearenak. Tokiko legeak ez badu onartzen berme inplizituak kanpoan uztea, berme edo baldintza inplizituak berme mugatuaren epean soilik egongo dira indarrean eta tokiko legeak baimendutako heinera egongo dira mugatuta. Tokiko legeak berme mugatua luzeagoa izan dadin eskatzen badu (kontratu honek dioena kontuan hartu gabe), epe luzeago hori aplikatuko da, baina kontratu honek onartzen dituen konponbideak soilik jaso ahal izango dituzu.**

c. Konponketa mugatua. Microsoft-ek, edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak berme mugatua hausten badu, aukeran honako hau egingo du: (i) softwarea doan konpondu edo ordeztu edo (ii) softwarea (edo, hala nahi badu, softwarea aurreinstalatuta zekarren gailua) itzultzea onartu, ordaindutakoa itzulita, zerbait ordaindu bada. Gehigarriak, eguneratzeak eta ordezeko softwareak ere konpon edo ordeztu ditzake fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek, bertatik zuzenean eskuratu badituzu), edo haien truke ordaindutako diru-kopurua itzul diezazuke, zerbait ordaindu baduzu. **Horiexek dira berme mugatua urratzeagatik dauden konponbide bakarrak.** Berme mugatu honek legezko eskubide zehatzak ematen dizkizu, baina, horiez gain, estatuaren edo herrialdearen arabeko beste eskubide batzuk ere izan ditzakezu.

d. Kalteak. Microsoft-ek edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eskaini diezazkizuketen konponketez, ordezkapenez edo diru-itzultzeez aparte, ez duzu kalte-ordainik eskuratuko berme mugatu honi, kontratu honen ezein parterri eta ezein teoria, kalte edo konponbideri jarraiki. **Konponbide horien barruan hartzen dira etekinak galtzeagatik kalteak, kalte zuzenak, ondoriozkoak, bereziak, zeharkakoak edo ezbeharrekoak.** Kontratu honetako kalteen baztertzek eta konponbide-mugak aplikatuko dira nahiz eta konpontzek, ordezteak edo diru-itzultzeak izandako galerak guztiz ez konpentsatu, nahiz eta Microsoft-ek edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak kalte horiek gerta zitezkeela jakin edo jakin behar izan, eta nahiz eta konponbideak bere oinarritzko helburua ez bete. Zenbait estatuk edo

herrialdek ez dute onartzen ezbeharrezko, ondoriozko edo bestelako kalteak kanpo uztea edo mugatzea; beraz, baliteke muga horiek edo baztertzeak zuri ez aplikatzea.

Tokiko legeak Microsoft-engandik edo gailuaren fabrikatzaile edo instalatzailearengandik kalte-ordainak jasotzea baimentzen badu, nahiz eta akordio honek baimendu ez, ezingo duzu softwarearengatik ordaindu duzuna baino gehiago berreskuratu (edo \$50 USD, softwarea doan eskuratu baduzu).

e. Bermea eta diru-itzultze prozedurak. Zerbitzua edo dirua itzul diezazuten, erosketa-agiriaren kopia bat erakutsi beharko duzu eta Microsoft-en itzultzeko gidalerroak bete beharko dituzu, baldin eta softwarea Microsoft-engandik eskuratu baduzu, eta gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen itzultzeko gidalerroak, fabrikatzaile edo instalatzailearengandik eskuratu baduzu. Software independentea erosten baduzu, itzultzeko gidalerro horiek eska diezazukete softwarea desinstalatzea eta Microsoft-i itzultzea. Softwarea aldezturik gailuan instalatuta eskuratu baduzu, itzultzeko gidalerro horiek eska diezazukete softwarea instalatuta duen gailu osoarekin batera itzultzea; produktu-gakoa duen jatorrizko autentikotasun-ziurtagiriaren etiketak gailuan itsatsita egon beharko du (betiere gailuarekin batera bazetorren). Softwarearen berme-zerbitzua nola eskuratu jakiteko, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin gailuarekin batera emandako helbidean edo doako telefonoan. Microsoft bada gailuaren fabrikatzailea edo softwarea saltzaile batengandik eskuratu baduzu, jarri Microsoft-ekin harremanetan:

(i) Estatu Batuak eta Kanada. Telefonoaren bidez (800) MICROSOFT-en; posta elektronikoaren bidez Microsoft Customer Service and Support-en, One Microsoft Way, Redmond, WA 98052-6399; edo ikusi hemen: <https://aka.ms/nareturns>.

(ii) Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika. Posta elektronikoaren bidez hemen: Microsoft Ireland Operations Limited, Customer Care Centre, One Microsoft Place, South Country Business Park, Leopardstown, Dublin 18, Ireland; edo ikusi hemen: <https://aka.ms/mssupport>.

(iii) Australia. Telefonoaren bidez hemen: 13 20 58; posta elektronikoaren bidez: Microsoft Pty Ltd, 1 Epping Road, North Ryde NSW 2113 Australia; edo ikusi hemen: <https://aka.ms/mssupport>.

(iv) Beste herrialde batzuk. Jar zaituzte harremanetan zure herrialdean Microsoft-en zerbitzua ematen duen afiliatuarekin hemen: <https://aka.ms/mssupport>.

10. Arbitraje lotesleari buruzko klausula eta auzi kolektiboaren ezespena, Estatu Batuetan bizi bazara edo zure enpresaren egoitza nagusia Estatu Batuetan badago.

Gatazkarik ez izatea espero dugu, baina, izanez gero, zuk eta guk onartu egiten dugu 60 egunetan, Gatazkaren jakinarazpena jaso ondoren, modu informalean konpontzen saiatuko garela. Ezin badugu konpondu, zuk eta guk onartu egiten dugu **American Arbitration Association ("AAA") elkartearen aurrean Arbitrajei buruzko Lege Federalari ("FAA") jarraiki banakako arbitraje loteslea gauzatuko dugula, eta uko egiten diogu gatazkak epaileen edo epaimahaien bidez ebazteko eskubideari.** Horren ordezt, arbitro inpartzial batek konponduko du gatazka eta haren erabakia behin betikoa izango da, FAAk ezarritako berrikuspen-eskubide mugatuari dagokionez izan ezik. **Ez da onartzen auzi kolektiborik, klase arteko arbitrajetik, fiskalaren ekintza pribatuko auzirik, herri-agindu eskaerak eta bestelako ekintzarik, non norbaitek ordezkari-ahalmenarekin jarduten duen. Halaber, ez da onartzen hainbat banako prozedura konbinatzea alderdi guztien baimenik gabe.** "Gu", "gure" eta "guri" Microsoft, gailuaren fabrikatzailea, softwarearen instalatzailea eta horren filial guztiak dira.

a. Estalitako gatazkak (gatazka guztiak IPari buruzkoak salbu). "Gatazka" terminoa ulertu bezain zabala da. Zure eta fabrikatzailearen edo instalatzailearen zein zure eta Microsoft-en arteko softwarea, prezioa, marketina, komunikazioak, zure erosketa transakzioa, fakturazioa, edo kontratuari buruzko edozein erreklamazio eta eztabaida hartzen ditu barne ezein legezko teoriaren pean. Teoria horiek kontratua, bermea, kalteak, **estatutuak eta erregulazioak izan daitezke, baina ez zure, zure lizentzia-emaileen, gure edo gure lizentzia-emaileen jabetza intelektualaren eskubideei dagozkienak.**

b. Bidali Gatazkaren Jakinarazpen bat arbitrajearen aurretik. Gure bezeroentzako arreta-zerbitzuko ordezkariak konpondu ezin duten gatazka bat izanez gero, eta zuk arbitrajea nahi baduzu, lehenbizi bidali ahal diozu Gatazkaren jakinarazpen bat Estatu Batuetako posta-zerbitzuaren bidez gailuaren fabrikatzaileari edo instalatzaileari, ATTN: LEGAL DEPARTMENT (lege-saila) sailera zuzenduta. Gatazka Microsoft-ekin bada, bidali gatazka-jakinarazpena helbide honetara: Microsoft Corporation, ATTN: CELA ARBITRATION, One Microsoft Way, Redmond, WA 98052-6399, edo inprimakia elektronikoki bidali. Gatazkaren jakinarazpeneko inprimakia <https://go.microsoft.com/fwlink/?LinkId=245499> helbidean dago erabilgarri. Bete ezazu inprimaki osoa, eskatzen dizun informazio guztiarekin. Guk gatazkaren bat badugu zurekin, gauza bera egingo dugu. Aplikatu beharreko preskripzio-epealdi guztiak behar bezala aurkeztutako banakako Gatazkaren Jakinarazpenaren datatik 10. Sekzio honen

arabera arbitraje bat ezarriko da behar bezala aurkeztu ahal izango den lehen egunera arte.

c. Kantitate txikiko erreklamaziotarako auzitegiaren bidea. Gatazkaren jakinarazpena bidali beharrean, zuk edo guk beste alderdia salatu ahal izango dugu erreklamazio txikien epaitegian, erreklamazio txikien epaitegian bakarrik eskatuz, betiere akzioak erreklamazio txikien epaitegiaren eskakizunak betetzen baditu eta banakako ekintza bat izaten jarraitzen badu. Erreklamazio txikien auzitegiak zure bizilekuan egon behar du (edo, negozioa bada, zure negozio-leku nagusian).

d. Arbitraje-prozesua. AAA elkarteak bere arbitraje komertzialaren araei jarraiki gauzatuko ditu arbitrajeak edo, banakoa bazara eta softwarea pertsonalki edo etxean erabiltzen baduzu edo gatazkaren balioa 75.000 \$ USD edo gutxiagokoa bada (zu banakoa zaren edo softwarea nola erabiltzen duzun kontuan hartu gabe), bere kontsumitzaileen arbitraje-arauei jarraiki. AAAREN Arbitraje Masiboko Arau Osagarriak, 10. Sekzio honek aldatutakoak, Lotutako Kasuetan aplikatuko dira (behean aztertuko direnak). Informazio gehiago lortzeko, joan <https://aka.ms/adr> helbidera. **Hitzarmen honek AAA arau aplikagarriekin kontraesanean dagoen neurrian arautzen du.** Arbitraje bat abiarazteko, bidali <https://go.microsoft.com/fwlink/?LinkId=245497> helbidean erabilgarri dagoen inprimakia AAA elkarteari eta bidali mezuaren kopia bat fabrikatzaileari edo instalatzaileari (edo, gatazka Microsoft-ekin bada, Microsoft-i). Inprimakiak zuri eta zure erreklamazioari dagokion informazio zehatza izan behar du. 25.000 \$ USD edo gutxiagoko balioa duten gatazketan, bistak telefono edo bideokonferentzia bidezkoak izango dira, salbu eta arbitroak presentziazko bista egiteko arrazoiak aurkitzen baditu. Aurrez aurreko bistak bizi zaren eskualdean (edo, enpresa bat izanez gero, egoitza nagusia duzun eskualdean) egingo dira. Arbitroak egokitu ahalko dizu auzitegi batek egokituko lizukeen kalte-ordain berbera. **Hala, arbitroak kalte-ordain deklaratioak edo legezkoak eman diezazkizuke banako gisa, zure banako erreklamazioaren ordainetan, baina ez alderdi ez direnei eragingo liekeen arindura.**

Arbitroak gai guztietan erabakitzen du auzitegi batek eskumen eskusiboa duen kasuan izan ezik: (i) arbitrajea erabakitzea, baita arbitraje-hitzarmen honen eraketa, existentzia, irismena, indarraldia eta betearazgarritasuna erabakitzea ere; (ii) alderdiek arbitrajearen aurreko baldintzak bete dituzten ala ez erabakitzea (banakako Gatazkaren jakinarazpena eta Arbitraje eskaeraren inprimakiak barne); (iii) akzio edo prozedura kolektibo, ordezkari, fiskal nagusi pribatu edo konbinatuen debekua betearaztea edo ebakuntza publikoa; eta (iv) 10. Sekzio hau betetzen ez badu arbitraje bat prozeduratik agintzea.

Zure Gatazkaren Jakinarazpena gutxienez beste 24 bezeroren antzeko erreklamazioak badakartza, eta zu eta beste bezero horiek abokatu berberak ordezkatzeko badituzue, edo elkarren artean koordinatzen ari diren abokatuak, zuk eta guk adosten dugu erreklamazio hauek izango direla. "Erlazionatutako kasuak". Zuk eta guk onartzen dugu AAAren Arbitraje Masiboko Arau Osagarriak Arbitraje-eskaera aurkezten denean indarrean daudenak, 10. Sekzio honek aldatutakoak, Lotutako Kasuetan aplikatuko direla. Erlazionatutako kasuak aldi berean gehienez 50 banakako arbitrajeko sortetan soilik aurkeztu ahal izango dira, eta banakako arbitraje horiek era honetan ebatziko dira: (i) lehen multzorako, alde bakoitzak Erlazionatutako Kasu hauetatik 25 aukeratu ahal izango ditu gehienez 10. Sekzio honen arabera banakako arbitrajeetan artxibatu eta ebatziko dira; (ii) Erlazionatutako beste kasuetako bat ere ezin izango da arbitrajeen artxibatu edo epaitu, gehienez 50 banakako arbitrajeko lehen multzoa ebatzi arte; (iii) lehenengo sorta horren ondoren, alderdiek ezin badute ebatzi gainerako Erlazionatutako Kasuak, Erlazionatutako kasuen bigarren sorta bat aurkeztu ahal izango da, non alde bakoitzak Erlazionatutako Espedienteetatik 25 gehienez hauta ditzake banan-banan ebatzi beharrekoak, 10. Sekzio honen arabera arbitrajeak. Banaka bildutako arbitraje multzoen prozesu honek jarraituko du alderdiek Erlazionatutako Kasu guztiak modu informalean edo banakako arbitrajeen bidez ebatzi arte. Epaitegi batek eskumen eksklusiboa du paragrafo hau betearazteko, erreklamazio-multzo jakin bati aplikatzen zaion barne, eta paragrafo hau betetzen ez duten arbitrajeak artxibatzea edo epaitzea agintzeko.

e. Arbitrajearen kuotak eta ordainketak. AAAk arautuko du auzibide-kuoten eta AAAren eta arbitroaren tarifa eta gastuen ordainketa.

Gainera, gatazka goian deskribatzen diren Erlazionatutako Kasuen parte ez bada, gatazkak 75.000 \$ baino gutxiago ditu, eta arbitrajea hasi aurretik 10. Sekzio honetako arbitraje aurreko baldintza guztiak bete dituzu, orduan (1) gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek, zure gatazka Microsoft-ekin bada) berehala itzuliko dizkizu zure artxibatze-kuotak eta AAAren eta arbitroen tasak eta gastuak ordainduko ditu; eta (2) arbitrajea amaitzean, arbitroak arbitroa izendatu aurretik egindako azken idatzizko eskaintza baino gehiago ematen badizu, gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek, zure gatazka Microsoft-ekin bada): ordainduko dizu (i) sariaren zenbatekoa edo \$ 1,000 USD (gehiago izanik); (ii) jasan dituzun arrazoizko edozein abokatu-komisionengatik; eta zure prokuradoreak zure arbitraje indibidualarekin lotutako arrazoizko gastuak (adituen ordainsariak eta kostuak barne).

f. Larritasuna. Errekurtso guztiak agortu ondoren, epaitegi batek 10. Sekzio honen zatiren bat bete ezina ikusten baldin badu erreklamazio edo erremedio baten eskaerari dagokionez, orduan alderdiek adostuko dute arbitrajearen menpe dauden erreklamazio

eta errekurso guztiak arbitratzea, epaitegietan gainerako erreklamazio edo errekursoak auzitan jarri aurretik (adibidez, agindu publikoko errekursoa eskatzeko, kasu horretan arbitroak erantzukizunari eta banakako ordainsari buruzko laudo bat ematen du auzitegi batek eskaera hori aintzat hartu aurretik). Bestela, 10. Sekzioko beste edozein parte beteazina dela ikusten bada, gainerakoak indarrean jarraituko du (arbitraje-laudo batekin, edozein prozedura judizial hasi baino lehen).

g. Microsoft parte gisa edo hirugarren onuraduna. Microsoft bada gailuaren fabrikatzailea edo softwarea saltzaile batengandik eskuratu baduzu, Microsoft alderdi bat da kontratu honetan. Bestela, Microsoft ez da kontratu honetako alderdia, baina gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen kontratuko hirugarren onuraduna da, gatazkak negoziazio informalaren eta arbitrajearen bidez ebazteko.

11. Indarrean dagoen legea. Bizi zaren edo zure enpresak egoitza nagusia duen estatuko edo herrialdeko legeen arabera arautuko dira softwareari, prezioari edo hitzarmen honi buruzko erreklamazio eta gatazka guztiak, hurrengoak barne harturik: kontratua ez betetzeagatiko erreklamazioak eta kontsumitzailea babesteko Estatuko legeen mende egindako erreklamazioak; bidegabeko lehiaketa-legeak; berme-lege inplizituak, eta bidegabeki aberastea eta kalteak, lege-oinarrien gatazkak gorabehera. Ameriketako Estatu Batuetan, FAAk arbitrajearekin lotutako xedapen guztiak arautzen ditu.

12. Sareak, Datuak eta Interneten erabilera. Softwarearen eginbide gehienek eta softwarearen bidez atzitzen diren zenbait zerbitzuek gailua Internetera konektatuta egotea eskatzen dute, gutxienez softwarea aktibatzean edo berraktibatzean. Softwarearen zenbait eginbidek eta softwarearen bidez atzitzen diren zenbait zerbitzuek gailua Internetera konektatuta egotea eskatzen dute. Internetera sartzeko eta hura erabiltzeko baldintzak (tarifak barne) operadorearekin edo Internet hornitzailearekin duzun kontratuaren zehaztapenen arabera dira. Softwarearen eginbide batzuek Internetera modu eraginkorragoan sartzeko laguntzen dizute, baina baliteke softwarearen erabilera-kalkuluak eta zerbitzu-hornitzailearenak ez etortzea bat. Zure arduradunak (i) planen eta kontratuen baldintzak ulertu eta betetzea, eta zure erantzukizuna (ii) sareetan (publikoak/irekiak barne) sartzegatik edo horiek erabiltzaileagatik gerta daitezkeen arazoak. Softwarea sareetara konektatzeko eta sareon sarbide-informazioa partekatzeko erabil dezakezu, horretarako baimena baduzu.

13. Eskubide Mugatudun Bertsioak. Eskuratu duzun softwarearen bertsioak erabilera jakin edo mugatu bat badu helburu gisa, softwarea erabilera horrekin erabili ahalko duzu soilik. Ezin dituzu softwarearen ondoko bertsio horiek helburu

komertzialetarako, irabazi-asmorik gabeko jardueretarako edo dirua irabazteko jardueretarako erabili:

a. Eskola edo Unibertsitatea. Erabilera akademikoa aitor diezazugun, hezkuntza-erakunde bateko ikasle, irakasle edo langile izan behar duzu lizentzia erosten duzun unean.

b. Etxea.

c. Militarren Esker-onekoa. "Erabiltzaile militar kualifikatua" izan behar duzu "Militarren esker-onekoa" markatutako softwarearen edizioaren lizentzia izan ahal izateko. Erabiltzaile militar kualifikatua izateko, Amerikako Estatu Batuetan, Zerbitzu Armatuaren Partekatzeetan baimendutako patroia izan behar duzu, AEBetako estatutu eta arau federal aplikagarrien arabera.

d. Kanadako Indarrak. "CANEX Baimendutako Patroia" izan behar duzu "Kanadako Indarrak" gisa markatutako softwarearen edizioaren lizentzia izan ahal izateko. CANEX Baimendutako Patroiak honako hauek dira:

* Indar Armatuetak (CAF) kideak (Erregularra eta Erreserbako Indarra) eta haien senideak;

* Beteranoak (CAFeko kide ohiak) eta haien senideak, hildakoaren senideak barne;

* Gaur egun CAFekin lanean ari diren atzerriko militarreko kideak eta haien senideak;

* Kanadako Indarrak (NPF, CF) ez diren funts publikoetako egungo langileak;

* Senitarte Militarreko Baliabide Zentroetako (MFRCs) egungo langileak;

* Defentsa Nazionaleko (DND) egungo funtzionario publikoak eta haien senideak;

* Royal Canadian Mounted Police (RCMP), zerbitzuan eta ohia, eta haien senideak;

* Kanadako Defentsa Ikerketa eta Garapeneko (DRDC) egungo langileak eta haien senideak;

* Kanadako Defentsa Eraikuntzako (DCC) egungo langileak eta haien senideak;

* Ohorezko koronelak / kapitainak (N), teniente koronelak / komandanteak eta haien senideak;

* NPF, CFko langileen familiako kideak; edo

* MFRCko kideen senideak.

14. Kontsumitzaileen Eskubideak; Eskualdearen Araberako Aldaketak. Hitzarmen honek zenbait lege-eskubide azaltzen ditu. Baliteke bestelako eskubideak izatea, kontsumitzaile-legeak kasu, zure estatuko edo herrialdeko legeen arabera. Halaber, baliteke softwarea erosi zenuen aldearekiko eskubideak izatea. Kontratu honek ez ditu eskubide horiek aldatzen, zure estatuko edo herrialdeko legeek hori onartzen ez badute. Adibidez, softwarea ondoko eskualdeetako batean eskuratu baduzu edo derrigorrezko legeak badaude, xedapen hauek aplikatuko zaizkizu:

a. Australia. "Berme mugatuari" egindako erreferentziak Microsoft-ek, gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eskainitako berme esplizituari dagozkio. Berme hori legezko beste eskubide eta konponbideez aparte ematen da, Australiako Kontsumitzaile Legean bildutako bermeen araberako eskubide eta konponbideak barnean hartuta. Kontratu honetan ezerk ez ditu eskubide edo konponbide horiek mugatzen edo aldatzen. Zehazki:

(i) bermeak, garantiak, kalte-ordainak eta konponketak mugatzen edo baztertzen dituzten xedapenak, eta Bermeak, Ezeztapena, Konponketa, Kalteak eta Prozedurak izenburuko 9. **Sekzioan adierazten diren eskubideen tokian tokiko legeen araberako epe mugatua** ez dira aplikagarriak izango Australiako Kontsumitzaile Legean bildutako kontsumitzaileen bermeengan eta horien arabera dagozkizun eskubide eta konponketetan;

(ii) 8 eta 9.e Sekzioetan aipatzen diren laguntza eta itzultze-gidalerroak Australiako Kontsumitzaile Legearen menpe egongo dira;

(iii) Australiako Kontsumitzaile Legean bildutako kontsumitzaileen bermeak aplikagarriak dira 16. Sekzioan deskribatutako software-ebaluazioan eta 18. Sekzioan deskribatutako software-aurrebistan; eta

(iv) gure ondasunak dakartzan bermeak ezin dira ezeztatu Australiako Kontsumitzaile Legearen eraginez. Azpiatal honetan, "ondasuna" Microsoft-en, edo gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen berme esplizitua daukan softwarea da. Eskubideak

dituzu, zerbitzua guztiz hondatzen bada, horren ordezkoa jasotzeko edo dirua bueltan jasotzeko eta, aurreikusi zitekeen galera edo kalterik gertatzen bada, diru-konpentsazioa jasotzeko. Halaber, ondasunak ez badira onartutako kalitatezkoak eta hutsegiteak ez badu guztizko hondatzea beste kostatzen, eskubidea duzu ondasunak konpondurik jasotzeko edo trukean ordezko bat jasotzeko.

Australiako Kontsumitzaile Legearen arabera dituzun eskubideei buruz gehiago jakiteko, berrikusi helbide honetan daukazu informazioa: <https://aka.ms/acl>.

b. Europar Batasuna. Baliteke "Eskubide mugatundun bertsiok" goiko sekzioko erabilera akademikoaren murriztapena zuri ez aplikatzea. Zure erabiltzeko eskubideak tokiko legeen arabera dira, eta edozein unetan alda daitezke.

c. Alemania eta Austria.

(i) **Bermea.** Softwarearen lizentzia egokia eta aktibatua bada, softwarearekin batera jasotako Microsoft materialetan azaldu bezala funtzionatuko du softwareak. Nolanahi ere, gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek ez dute beste kontratuzko garantiarik ematen lizentziadun softwareari dagokionez.

(ii) **Erantzukizunaren Muga.** Nahitako jokabidea edo axolagabekeria larria ematen denean, produktuaren erantzukizun-agirian oinarritutako erreklamazioetan, bermatutako zehaztapenak eta iruzurrez ezkutatutako akatsak edota norbait hiltzen edo zauritzen denean, gailuaren fabrikatzailea edo instalatzailea, edo Microsoft da erantzule, legeari jarraiki.

Aurrekoaren harira, gailuaren fabrikatzaileari edo instalatzaileari, edo Microsoft-i axolagabekeria arina soilik egotziko zaio kontratuzko betekizun materialak apurtzen badituzte. Hala, betekizun horiek kontratu honen funtzionamendu egokia errazten dute, eta horiek urratzeak kontratuaren helburua eta alderdiaren esana nahiz fidagarritasuna ("betebehar kardinalak") arriskuan jarriko lituzke. Axolagabekeria arinaren beste kausa baten ondorio bada, gailuaren fabrikatzailea edo instalatzailea eta Microsoft ez dira erantzule izango.

d. Japonia. Japonian bizi bazara edo softwarea Japonian bizi zinen bitartean eskuratu baduzu eta softwarea dendari baten eskutik eskuratu baduzu software autonomo gisa, honako lizentzia hauek ematen dizkizugu gure lizentzien arabera, baldin eta hitzarmen honetako baldintza guztiak betetzen badituzu: softwarearen bigarren kopia lizentziaduna bigarren gailu batean instalatu eta erabili ahal izango duzu,

lehenengo gailuaren erabiltzaile lizentziaduna zaren bezala. Japonian bizi zinen bitartean softwarea eskuratu baduzu eta softwarea gailu batean instalatuta zegoela eskuratu baduzu, softwarearen babeskopia deskargatu dezakezu account.microsoft.com helbidetik, eta babeskopia hori berriro instalatzeko helburuetarako erabil dezakezu, softwarea baimenduta daukan gailu berean. 13. Sekzioan ezarritako erabilera ez komertzialaren murriztapenak ez dira aplikagarriak softwarearen erabilerari dagokionez, Japonian bizi bazara edo Japonian bizi zinen bitartean softwarea eskuratu baduzu. Microsoftek, ez gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak, laguntza mugatutun zerbitzuak eskaintzen ditu dendari batengandik eskuratutako softwarearentzat eta Japonian eskuratutako "PIPC" softwarearentzako gailu batean instalatuta dagoen moduan.

15. Hizkuntza-Paketeak eta Zuzentzeko Tresnak. Softwarerako hizkuntza bertsioaren laguntza osagarria eskaintzen duen hizkuntza-paketea edo zuzentzeko tresna eskuratzen baduzu, pakete edo tresna horretan sartutako hizkuntza osagarriak erabil ditzakezu. Hizkuntza-paketeak eta zuzentzeko tresnak softwarearen zati dira, eta ezin dira bereizita erabili.

16. Ebaluazioa eta Proba. Ebaluaziorako (edo proba edo erakustaldirako) erabilerarako, ezin duzu softwarea saldu, bizi-ingurune operatibo batean erabili, edo erabili ebaluazio-aldia igaro ondoren. Hitzarmen honetan aurkakoa adierazten ez bada, ebaluazio-softwarea "BERE HORRETAN" ematen da eta bertsio horiei ez zaie aplikatuko beste bermerik (Berme mugatua ere kontuan hartuta), ez berariazkorik ez inpliziturik.

17. NFR. Ezin duzu "NFR" edo «Not for Resale» (ez birsaltzeko) etiketa duen softwarerik saldu.

18. Aurrebista. Microsoft-ek eskaintzen dituen argitaratu aurreko bertsioak ("aurrebistak"), besteak beste, Preview, Insider edo Beta, erabil ditzakezu. Aurrebistak erabil ditzakezu softwarearen hitzarmena iraungi arte, baldin eta hitzarmen honen baldintzak betetzen badituzun. Kontuan izan aurrebistak esperimentalak direla eta balitekeela bertsio komertzialarekin bat ez etortzea. Hitzarmen honetan aurkakoa adierazten ez bada, aurrebistak "BERE HORRETAN" ematen dira eta bertsio horiei ez zaie aplikatuko beste bermerik (Berme mugatua ere kontuan hartuta), ez berariazkorik ez inpliziturik. Aurrebistak gailuan instalatu ostean, baliteke gailuaren bermea bertan behera uztea edo horrengan eragitea, eta horren ondorioz, ziur asko, ezin izango duzu baliatu gailuaren fabrikatzailearen edo sare-operadorearen laguntza-zerbitzua, aplikagarria bada. Microsoft-ek ez du erantzukizunik izango gertatutako kalteengatik. Halaber, Microsoft-ek ez du eskainiko aurrebistetarako laguntza-zerbitzurik. Microsoft-i iruzkinak, iradokizunak edo antzeko oharra bidaltzen badiuzu aurrebistari buruz

("bidalketa"), bidalketa hori edozein modutan eta edozein helbururekin erabiltzeko eskubidea ematen diozu Microsoft-i eta bere bazkideei.

19. Eskubide-Erreserbatzea eta Oharrak. Kontratu hauetan adierazitako kasuetan salbu, Microsoft-ek ez dizu bermatuko lizentziarik edo beste eskubiderik Microsoft-ek edo berarekin erlazionatutako entitateek kudeatutako patentei, ezagutza teknikoei, copyrightei, salerosketa-sekretuei, marka komertzialei edo jabetza intelektualarekin erlazionatutako beste elementuei (besteak beste, izenak, irudiak, logotipoak edo antzeko elementuak) dagokienez. Produktu, teknologia, promozio, produktu-izen, produktu-ohar edo produktu-hobespen berriei buruzko ideiak, proposamenak, iradokizunak edo oharrak ematen badizkiozu Microsoft-i ("Oharrak"), doan eta egile-eskubiderik eta zurekiko erantzukizunik gabe ematen dizkiozu ohar horiek, edonola eta edozein xedetarako erabil, parteka eta komertzializa ditzan eta oharretan oinarritutako lan alternatiboak sor ditzan. Ez duzu emango Oharrak, baldin eta Ohar horrek edonolako lizentziarik badu eta, lizentzia horren ondorioz, Microsoft-ek lizentzian eman behar badizkie softwarea, teknologia edo dokumentazioa hirugarrenei Oharrak horietan sartu izanagatik.

20. Bereizgarritasuna. Hitzarmen honetako parte guztiak aplikatzen dira, dagokion legeak onartzen duen neurrian. Auzitegi edo arbitro batek hala esanda ezin badugu Hitzarmen honetako parteren bat idatzita dagoen bezala betearazi, pasarte horren ordeztzeko baldintza batzuk jarri ahalko ditugu, dagokion legeak haiek betearaztea ahalbidetzen duen neurrian, baina Hitzarmenaren beste zatiak ez dira aldatuko. 10.f sekzioak azaltzen du zer gertatuko den 10. Sekzioko (arbitratzea eta taldeko auzi-eskei uko egitea) parteren bat ilegala edo ezin betearazizkoa gertatzen bada. 10.f Sekzioa sekzio honi gailenduko zaio, harekin bat ez badator.

21. Kontratuaren osotasuna. Kontratu hau (eta horrekin batera, softwarearekin datozen paperean inprimatutako lizentziak, edo software-gehigarriak, bertsio berritzeak, eguneratzeak eta zerbitzuak -fabrikatzaileak edo instalatzaileak, edo Microsoft-ek eskainitakoak-, horiek erabiltzen badituzu) eta kontratuan adierazitako web-esteketako baldintzak dira softwarearen, gehigarrien, bertsio berritzeen, eguneratzeen eta zerbitzuen kontratu osoa (fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek bestelako baldintzak ematen ez baditu gehigarri, bertsio berritze, eguneratze edo zerbitzu horietarako). Lizentzia hau berrikusi dezakezu zure softwarea exekutatu ondoren, <https://aka.ms/useterms> helbidera, edo Fitxategia - Kontua - Inguruan softwarearen atalera joanda. Horrez gain, baldintzak irakur ditzakezu kontratu honetako esteketan. Horretarako, URLak arakatzailaren helbide-barran idatzi eta hori egitea onartu behar duzu. Softwarea edo zerbitzuak erabili aurretik baldintzak (estekatutakoak barne) irakurriko dituzula zein egiten duzu. Softwarea edo zerbitzuak erabiliz gero, kontratu

hau eta estekatutako baldintzak onartzen dituzula baieztatzen duzu. Halaber, kontratu honetan informazioa eskaintzen duten estekak daude. Oharrak eta baldintza lotesleak dituzten estekak hauek dira:

- Microsoft-en pribatutasun-adierazpena: <https://aka.ms/privacy>
- Microsoft-en zerbitzu-hitzarmena: <https://aka.ms/msa>